

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

46. zk. 1996ko urria

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

SOBRADUN
antzerki taldea



EUSKARRI kirol 
elkarte euskalduna



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	



[illegible]

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

ZKIA: _____ Pisua: _____

KALEA zakarrak eta su garrak

Zer egin zaborrekin? Aspalditxotik ohituta gaude usteldu eta degradatu ezin diren produktuak erabili eta kontsumitzen. Behin erabili ondoren, zabor bihurtzen dira eta, beraz, gure bistatik kendu beharraren premia sortzen da. Hori konpontzeko, zabor-bilketaren ardura duten langileek, kaleetako zaborra jaso eta "desagertarazi" egingo dute. Baina zer egin jasotako hondakin-piloarekin? Bizkaian errausteko laborearen alde agertu dira eta Gipuzkoan pilaketaren alde. Gasteizko zenbait auzotan hasita dira dagoeneko zabor-bilketa selektiboa egiten, hots, jatorri organikoa eta ez-organikoa duten hondakinen banaketa egiten.

1.- Zakarraren arazoa konpontzeko unean zer duzu gogokoen, errausteko labeak ala zabartegietan pilatzea?

2.- Hartzen al duzu neurririk zabor gutxiago sortzeko?



RAMON RUIZ DE AZUA
funtzionaria

- 1.- Nire ustez orain ditugun zabortegiak aproposenak dira.
- 2.- Plastikozko gauzak gero eta gutxiago erabiltzen ditut eta kanpaina berriek bultzatzen dutena betetzen saiatzen naiz.

Bertsoak

udaZkena



EGILEA:

Rikardo Glez. de Durana

DOINUA:

zortziko nagusia

Irailak hogeï eta bat
udazkenaren hasera
olerkarien aroa dugu
disfrutatzeke aukera
zuhaitzek beren ostosak galdu
orbela, berriz, lurrera
gure ametsak gauza ditzagun
amesgaiztoak lurpera

Giro honetan nola ez lotu
sentimentuen katean?
itxaropenez gizenzen baita
bihotza bete-betean
batzutan argi ta garbi baina
sarritan ustekabeen
udaberrian ereindakoa
ontzen da udazkenean.

Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo
platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



ROSABEL ARGOTE
irakaslea



MARISA BENITO
gizarte laguntzailea



RAMIRO FERNANDEZ
ordenantza



HIGINIO PALACIOS
jubilatua



RAKEL RUIZ
ikaslea

1.- Beste irtenbide egokiagoak bilatzen diru gehiago gastatu behar litzateke. Dena den, kimikoek esan behar dute zein den irtenbide egokiena
2.- Kontzientzia hartu dut baina oraindik ez nago prestatuta. zakarren kantitatea gutxitzeko.

1.- Ez dut ondo ezagutzen arazoaren sustraia eta horregatik ez dakit zein den alternatibarik hoberena.
2.- Zakarra gutxitzeari dagokionez ez naiz gehiegi saiatu baina bai birziklagai den materialen alorrean: papera, beira...

1.- Intzineradora bat abian jarri baino lehen beharrezkoa da aurretik dena ondo aztertzea. Zaborte giena nire ustez ez da aukerarik onena.
2.- Ahal dudana egiten dut. Baina jendea kontzientziatzen lan handia egin beharra dago oraindik.

1.- Printzipioz, errausteko labea nahiago dut baina jakina, arazoak kontrolpean egon behar dute.
2.- Bai, Adurtzan udalak egitasmo bat antolatu du zaborra ondo bereizteko eta primeran iruditzen zait.

1.- Ez naiz ziur baina erretzea ekologikoagoa dela uste dut...
2.- Guztiok egiten duguna egiten dut. Paper birziklatua erabiltzen dut eta beira eta kartoia udalak jarritako kontenedoreetara botatzen ditut.



txapelketa

a

Kaixo lagunok! Asmatu duzue. Iraileko argazkiak Fueros eta "el Polvorin" ziren. Irabazlea Josune Uriarte Arberas izan da. Zorionak!



b

Hile honetako argazkiak ere oso errezak dira, ezta? Animatu eta idatziguzu.



Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak
Mikeldi Zinemen eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfoa: 28 81 47
•GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



ROBERTO ELORZA

<AZKOITIAN "BITORIA" ESATEN GENUEN.
HEMEN GASTEIZ>



Nor da?

❑ Roberto Elorza Aldalur Azkoitiarra zelakoan ginen. Eta, jardun ere, "Hi!, Azkoitti!", jardun izan dugu hari hoska Gasteizen ezagutu genuenetik. Baina ezetz dio: <Azkoitiarra? Ez, gasteiztarra. Ama, azkoitiarra; aitta, Osintxukoa, Alberto Ansolaren herri berekoa>.

❑ <Akuario naiz baina ez dut sinesten horretan. Irakurtzen dut batzuetan baina lerdokeria galanta iruditzen zait>. Ordez, aspaldiko sinesteari eusten dio. <Nik Jesukristogan sinesten dut, Jainkoagan>.

❑ Berroztegietan bizi da emazte eta alaba ttikiarekin eta aita-amaginarrebarekin. Horregatik bizi da etxopolbotuta, beharbada. Bestalde, ondo ere bizi da. <Fenomenal bizi nauk hemen, arbolez inguratuta, eta animaliekin>. Animaliak? Zein animalia? <Hona etortzen direnak: basurdeak, txoriak... Txoriak ikaragarri gustatzen zaizkit>.

❑ Afizioetan, mendia du lehenengo. <Baina ezin joan ninteke, istripua izan nuen-eta. Gerria hondatuta dut. Ezin dut zuen bezala ibili>.

❑ Ttikitatik mintzo da euskaraz. <Gasteizen jaio baina Azkoitira joan nintzen gero. Ama gaizki zegoen eta han egin genuen denboraldia. Han eta hemen ikasi nuen nik euskaraz>. Eta egia esan, egiten duen euskara, berriz, Azkoiti-Azkoitikoa da, nahiz eta herdoila izan mingainean. <Ni akordatzan naiz nola esaten zidan aittitek: "Roberto, hik beti erdaraz egin. Bestela ez daukak ezer!">. Bai, hori esaten zidan>. Ez dakigu aintzakotzat hartu zuen ere...

❑ Zolegi Inprimategian egiten du lan, Berroztegietan bertan. <Poliki-poliki, aurrera ari gara. Nik, berez, komertzial-lana egiten dut. Egunero-egunero irten eta lana inguratu inprimategirako>. Hargatik jaitsi behar izaten du sarri-sarri Gasteiza.

edo zer daukazunean, hor hasten dira zergak eta zergak. Beroriek guri kobratu bai, baina zer ematen digute ordainetan? Ezer ez. Zer egiten dute?

Hire kezkarik handiena, oraintxe?

Inprimategia.

Azkenaldiko pozik handiena?

Azkoitiko andramari festak ala Gasteizko amabirjin zuriarenak?

Ez dago konparatzerik. Parrandazalea izan naiz. Azkoitian, fenomenal eta Gasteizen ere super-ondo. Berroztegietan? Ez dakit.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria, Vitoria-Gasteiz?

E. Azkoitian, "Bitorira nitxiek" esaten diagu, "Vitoria" beraz. Hemen gaude eta "Gasteiz" esaten dugu...

Non biziko hintzateke gustora?

Hementxe nago gustora ni.

Zer dik on Berroztegietak?

Kanpoan gaudela.

Zer falta zaiok?

Adiskidetasuna, elkartasuna...

Norekin hitzegin duk euskaraz Berroztegietan?

Nire lagunarekin, Murgarekin -ikusten dudanean-, eta osabarekin, Aulestikoa da-eta. Gainera, amarekin, umearekin. (Nik hitzegin, hark aditu, hamabost hilabete ditu-eta berak).

Non da pozik bizitzeko sekretua?

Gobernuek gu bakean lagata trankil biziko ginateke. Zer



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia


Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

**Mateo Moraza kalea
GASTEIZ**

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Amaia, alaba jaio izatea. Eta adiskideak izateak ere poz ematen zidak.

Ilusiorik?

Oraintxe, hartu emaztea eta alaba eta Cartagena de Indias-a aldegingo nuke, hilabete bateko: fenomenala litzateke!

Eta zer egingo huke Cartagena de Indiasen?

Egia esanda, bertara joan, ikusi... eta bastante! Bestetik, lo egingo nuke! Umea dugularik ez dut lorik egiten.

Zer eramango huke irla batera?

Jatekoa asko, ardo ona...

Zinezalea haiz?

Gustatzen zaidak baina ez nauk joan duela urte asko. Telebistan ere gutxi ikusten ditiat, bideoa ere izan arren. Akziozkoak gustatzen zaizkidak niri baina

emazteari batere ez. Pelikula "dokumentalak" ikusten ditiat, "instruktiboak".

Aktore-aktorearen bat?

Van Damme!

Jeniorik ba al daukak?

Bai, bizia.

Zerk haserretzen hau?

Negozioek, famili-gorabeherek... Alzheimerrak jota diat amaginarreba eta oso gogorra duk hori.

Aukeratzetik bahu, nola hilko hintzateke?

Hil? Ez dut pentsatu. Ez dakit esaten, baina mendian-edo. Kolpetik.

Apetito handikoa haiz?

Azkenaldian jangartsu nabilek baina bai, apetito onekoa nauk.

Menu goxoren bat?

Lehenengo entsalada edo

baina-patatak urdaiazpiko pixka batekin; gero, behi buztana. (Ez naiz arrainzalea). Mahaiburuko, mamia. Edateko, ardoa, beltza.

Erretzailea?

Bai. Asko erretzen diat. Soldadutzan hasi ninduan, hemen, Arakan.

Igande goizeko plana?

Mendira irteera.

Nolakoa huke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Demonio arraioa! Ez zekiat bada!

Denbora librean zer?

Ez diat denbora librerik. Lehen, irakurri ohi nian. ZEN pentsamendukoak eta horrelakoak irakurtzen nitian. Orain, aldiz, hortxe diat horietako liburu bat urte

t'erdian batere ikutu gabe.

Zerk ematen dik bizitzeko poza?

Emazteak eta alabak.

Hire biziorik handiena?

Zigarroa.

Hire alderdirik onena?

Batzuek lanerako gaitasuna esaten zidatek, beste batzuek jendearekin egoten dakidala... baina ez zekiat, eta batere ez zaidak inporta.

Zer eskatzen diok bizimoduari?

Ondo bizitzea.

Ezagutzen duk GEU-Gasteiz?

Bai, baina ez diat aldizkaria jasotzen.

Zer iritzi duk?

Ez ditek nahikoa egiten. Formalidade pixka bat falta zaiek, formalidadea. Harremanetan ere, ez zagok hilabetea joan eta hilabetea etorri elkartearen erantzunaren zain egoterik. "Bilera dugu-eta!", erantzun izan ditek. Guk ere bai! Gainerakoan, pozik nagok aldizkariarekin, ikusi ditudan aleekin, esan nahi diat.

Zer galdera nahi huke nik hiri egitea?

Zergatik gauden horrela.

Zergatik gaude horrela?

Alderdi politiko asko dagoelako eta lasaitasuna eta bakea falta.

Miel Anjel Elustondo





ZAZPIAK BAT

GASTEIZKO BATZOKIA

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Arabako Foru Aldundiaren Kultura-eskaintza berria

URRIAN ZEHAR Kultura eta Euskara sailak haurrentzako literaturaren inguruko zenbait iharduera antolatu ditu.

Literatur sorkuntzan parte hartzen duten irudigile eta autoreekin topaketak egingo dira Kultur Etxean. Jarduera honen bidez, haurrak irudigile eta egileengana hurbildu nahi dira literatur sorkuntzaren prozesua gertutik ezagutzeko. Topaketa hauek asteartetan, goizez, egingo dira, eta gutxi gora-behera ordubete eta erdi eta bi ordu bitarteko iraupena izango dute. Ihardueraren mamia honako hau izango da: ipuin bat entzutea edo antzeturik ikustea, egilearekin solasaldi bat izatea eta ondoren irudia lantzea, taldeka nahiz banaka, irudigilearen eta Arabako Arte Ederretako Museoaren Arte Plastikoen Tailerraren laguntzarekin marrazkiak egingez.

Topaketa hauetan parte hartu nahi dutenek aurretik itundu beharko dute zita antolatzaileekin. Eskarien kopurua haundia izanez gero, antolatzaileek adierazi digutenez, ostegunetan beste saio bat antolatzeko prest daude.

Topaketa hauei ahalik eta probetxu gehien ateratzearren antolatzaileen ustez

oso komenigarria litzateke ikastetxeetan aurretiaz lanketa bat egitea. Haurrek liburuak irakurrita izatea eta ilustrazioei buruzko beren iritzia bai eta gustatu zaiena edo gustatu ez zaiena idatziz ekartzea oso komenigarria litzateke.

Topaketak baliagarriak izan daitezen, taldeak 35-40 ikasle bitartekoak izatea komeni da.

Egunean bi saio egingo dira. Lehen saioa bederatzi t' erdietan izango da eta lehen saio horretan parte hartuko duten taldeko ikasleak Kultur Etxera eramatea ikastetxearen ardura izango da. Topaketa bukatu ondoren, ordea, ikasleak euren ikastetxera itzultzeko Kultura eta Euskara Sailak jarriko du autobusa bai eta bigarren saioko ikasleak Kultur Etxera eraman eta beren ikastetxera itzultzeko ere.

Topaketa hauen antolaketa hobetu eta aberastu dezakeen edozein iradokizun kon-tuan izango dute antolatzaileek.

Honako hau duzue egitaraua:

URRIAREN 8an:

GUTUN HARRIGARRI BAT

Egilea: Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Argitaletxea: Elkar
8 urtetik-12 urte arte

URRIAREN 10ean:

TXAN, FANTASMA

Egilea: Mariasun Landa
Ilustratzailea: Jon Zabaleta
Argitaletxea: Elkar

8 urtetik-12 urte arte

URRIAREN 15ean:

GOLA, KATU TRAPEZISTA

Egilea: Xabier Etxaniz
Ilustratzailea: Josu Olano
Argitaletxea: Pamiela

8 urtetik-9 urte arte

URRIAREN 17an:

**ANDONI ETA
MADDALENEN
KOMEDIAK**

Egilea: Manu Lopez Gaseni
Ilustratzailea: Asisko Urmeneta
Argitaletxea: Pamiela

8 urtetik-12 urte arte

URRIAREN 22an ETA 24ean:

**BELLE, LANDETAKO
SIRENA**

Egilea: Mikel Garmendia
Ilustratzailea: Mikel Valverde
Argitaletxea: Zubia

9 urtetik-12 urte arte



Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideoa industrial
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

URRIAREN 29an:

KONTU ZAHARRAK

Egilea: Joxe Arratibel

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Argitaletxea: Erein

10 urtetik-12 urte arte

URRIAREN 31n:

MIREN, GARBIÑE ETA SORGIN BATEN KOMERIAK

Egilea: Pako Aristi

Ilustratzailea: Jesús Lucas

Argitaletxea: Elkar

8 urtetik-12 urte arte

Ikastetxeren batek topaketa hauetakoren batean parte hartzeko interesa izanez gero, ezinbestekoa da aurretiaz antolatzaileekin harremanetan jartzea.

Ipuin kontaketa eta Kometa aldizkaria

Ikastetxeei soilik zuzendutako topaketa horiez gain, asteazkenetan arratsaldeko 6etan ipuin kontalariak arituko dira Kultur Etxean jende guztiarentzat irekitako saioetan.

Honako hauek izango dira parte hartzaileak:

Urriaren 2an **Virginia Imaz**;Urriaren 9an **Peio Añorga**;Urriaren 16an **Antton Irusta**;Urriaren 23an **Joxe Mari****Karrere** eta urriaren 30ean**Koldo Amestoi**. Azaroren

hasieran, oraindik eguna

zehaztugabe dagoen arren

Bernardo Atxaga arituko da.

Kultura eta Euskara sailak antolatutako literatur jarduera berriekin amaitzeko **Kometa** haur-aldizkariaren aurkezpena aipatu behar da. Ekitaldia urriaren 30ean egingo da iluntzeko zortzietan eta bertan **A. Olariaga**, **X. Etxaniz**, **X. Monasterio** eta **M. A. Elustondok** aurkeztuko digute.

mugarriak

**ARGAZKIAN**

umoretsu eta bapo azaltzen ziren Gasteizko ordezkariak.

Hamaiketako ederra eskuetan eta irripartsu. Izan ere Olarizu Egunez, ohitura zaharrari behar bezala jarraituz, Gasteizko mugarriak bakoitza bere tokian ote zeuden ziurtatzera atera baitziren. Hamar kilometro inguruko ibilalditxo burutuz. Denak omen zeuden bere tokian, mugitu gabe.

Denak? Ez! Bat gaizki zegoela adierazten zuen pankarta bat haizeratu zuten Gasteizko Euskaltzaleak elkarteko kideek: "EUSKARARI

MUGARRIRIK EZ"

zioen pankarta hain zuzen. Garaia da, zioten, Udalerako Euskal Ordenantzak garatzeko. Aitzakiarik ez dago talde euskaltzaleek aspaldi aurkeztu baitzituzten legezko eta bidezko ordenantzak ezartzeko arauak. Zurrumuruak zutabe honetan ere aspaldi aipatu genituen eta oniritzia azpimarratu. Udaletxeko arduradunek ondo baino hobeto ezagutzen dituzte.

Oraingo honetan urtearen bukaera jarri dute mugarri gisara. Ordurako izenpetuta eta bideratuta behar lukete.

Horretarako borondate on piska bat aski litzateke.

Helmugara behar bezala iristeak atsegina sortzen du beti, batez ere ahaleginez eta borondate onez iristen baldin bada.

Ea horrela gertatzen den eta Gabonetan, Olarizu Egunean bezala, argazki dotore bat ateratzeko aukera izaten dugun, ogitartekoaren orde, behar bezalako, ondo eta tajuz egindako Euskal Ordenantzak eskuetan harturik. Edo, zergatik ez, biak batera. Hala bedi!!!

Abel Enbeita

EUSKAL OKELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24

Tfnoa: 25 56 90

GASTEIZ

Tu Invernadero
Zure Lore Sörtak

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

J A T E T X E A

XIXILU

“30 millones de gilipollas” zeu ere horien arte?an?

“30

Millones de
Gilipollas” da
Sobradun talde

gasteiztarak hilaren 16an estrenaituko duen antzezlan. Izenburua talde honen estiloaren erakusle da. Orain dela bi urte baino gehiago ezagutu nuen “Herminio y Miguelito” izeneko beren lehenengo antzezlan. Orduan hastapenean ziren, geroago arrakasta heldu zitzaizen. Euren estilo gogor, fresko, zuzenaren bitartez antzerkira joateko ohitura handirik ez duen ikuslea erakartzea lortu dute. Orain formula berbera erabiliko dute beraien bigarren lan honetan, baina “jendeak ez dezala pentsa Herminio y Miguelitoren bigarren zatia denik”. Hemen dituzue, Geu Gasteizko eskenatoki gainean, Sobradun taldeko partaideak: Ion, Iñaki, Gorka eta Roberto □



duzuela izan?

Bai, baina diru pixka bat gehiago irabaziko bagenu satisfakzioa are eta haundiagoa litzateke.

Hortxe dago koxka, behar bada. Egin nizuen azken elkarrizketan esan zenidaten honetaz bizi nahi zenutela. Antzerkiaz bizitzea posible dela pentsatzen duzue oraindik?

Ez genuen serio esango... antzerkiaz bizitzea oso zaila da. Antzerkia eginez biziko dela pentzatsen duenak jai dauka,

oker dago. Antzerkia, gustokoa dugulako eta nahi dugulako egiten dugu... eta ahal dugulako.

Gauzak, beraz, zuek pentsatu moduan ateratzen ari dira?

Ez, jakina ezetz. Guk uste genuena baino askoz hobeto atera zaizkigu gauzak orain arte. Guk ez genuen pentsatzen ia 70 “bolo” egingo genuenik “Herminio y Miguelito” lanarekin eta hor dago egindako lana. Hori bai, guk aurrera egiteko asmoa buruan geneukan eta orain bigarren lana prestatzen ari gara.

Iadanik hiru urte pasa dira Sobradun taldea sortu zenetik. Bistan dago lortu duzuen, baina zer ikusten duzue orain atzera begiratzen duzuenean?

Auto bat klaxona jotzen, (barreak)... beti autoa atzean. Polizia, beti polizia ikusten dugu. Eta gose asko, geldiunerik gabeko denboraldiak, eskasiak, errepideak, logurea...

Zer esan nahi duzue, satisfakziorik ez

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

jo eta ke
**TXAPELARRI
TABERNA**
KUTXI
kalean

Begira, -hitza hartzen du Ionek- kontua da ezer gabe hasten zarenean ez dakizula zer gertatuko den. Guk ikuskizun bat prestatu genuen baina ez genekien funtzionatuko zuenetz. Orain, berriz, Gasteizen eta beste leku askotan arrakasta lortu duen lan bat daukagu eta beste antzezlan berri bat prestatu dugu. Gasteizen, antzerki jaialdiaren barruan estreinatuko dugu lan berri hori. Hau guztia, lehen aldiz eginiko

"30 Millones de Gilipollas"

Antzezlan honek "Herminio y Miguelito" lanak zeuzkan gai berak azaltzen ditu; gogorra da, sarkastikoa, freskoa... Gorkaren esanetan:

"Gizarteko zenbait arlo astintzen ditugu. Batez ere futbol munduarekin loturik dauden gertaera batzuk ikutzen ditugu, partidu bat ikustea baino gauza interesgarriagoak badaudelako" Ionek ondotik honako hau aurpegiatzen dio: "Hala ere bere taldeak (Gorkari begiratur) txapelketaren bateko finala jokatz gero, bera han izango litzateke beste guztiok bezala".

Hiru aktoreen artean 14 pertsonaia sortzen dituzte, dena erritmo bizian gertatzen da. Eskenatokia hiri haundi bateko kale bat da. Akzioa arratsaldeko 6etan gertatzen da, Espainia eta Brasil Munduko Txapelketaren finala jolasten ari diren une berberean eta... ez digute gehiagorik kontatu, beno bai: "Udalak koproduzitzen duela azpimarratu nahi dugu".

Zuzendaria: Roberto Cuesta

Aktoreak: Ion Gabella, Gorka

Aguinagale eta

Iñaki Rodaballo

Gidoia: Mauro Entrialgo eta

Eloy Beato

Musika: Kike Suarez eta

Bingen Mendizabal

Jantziak: María Sánchez

Produktzioa: Txema Ramirez.

Eskenografia: Julio Torrecilla

elkarriketa hartan ez genuen usaitu ere egiten eta ez genuen imajinatzen orain horrelako egoera batean egongo ginenik.

Aurrera egin nahi zenuela zen, hortaz, argi zenuen gauza bakarra. Nola ikusten duze orain hori?

(Gorka) Saiatzen ari gara, ezta? (Ion) Errealitateari buelta eman diogu. Barkatu lagun, baina -Iñaki hasi da hizketan- hori merezitako saria da. Bi urte luzetan egindako lan gogoraren emaitza da. Dirurik ikusi gabe baina gogo eta ilusio haundiarekin egindako lanaren saria.

Non geratu dira orain Herminio eta Miguelito?

Orain dela gutxi Tarregan egon ginen. Herri horretan antzerki jaialdi erraldoia antolatzen dute eta talde bakoitzaren lana erakutsi eta saltzeko toki ezin hobea da. Gu oso pozik itzuli gara beste zenbait tokitan antzezteko aukera ekarri baitugu horrek.

Zuen antzerki estiloarekin molderen bat apurtu duze?

Zentzu batean bai, normalean antzerkira joan ohi ez den jendea gu ikustera etorri egiten delako. Guk jendea antzerki mundura erakartzea arrakastatzat hartzen dugu. Zeren gaur egun antzerkiak, diruaz gain, beste gauza batzuk behar ditu eta horien artean publiko berria. Guk jende berria antzokira hurbiltzea lortu dugu. Ez al da hori moldeak apurtzea?

Zuen bigarren estreinuaren atarian zaudetenean, "alternatibo" hitza erabil al daiteke zuen antzerki estiloa izendatzeko?

(Roberto) Ez zait hitz hori gustatzen. (Ion) Hori oso hitz arriskutsua da, zeren gero zirkuito alternatiboetan sartuko gaituzte. Gurekin hori egiten saiatzen ari dira eta ez du zertan horrela izan behar. (Iñaki) Gainera guk egiten duguna ez dago bereziki zuzenduta normalean antzerkiara joaten ez den jendearentzat.

Nik (Roberto) uste dut, antzerkira joateko ohitura duen ikusleak ere eskertzen duela erabat desberdina den istorioa eskenatokian ikustea. Hor dago benetako arriskua: jendeak pentsa dezakeela guk egiten duguna ez dela antzerkia, eta ez da horrela. Guk antzerkia egiten dugu,

desberdina izateagatik batzuek esaten dute ez dela antzerkia, baina.

Estreinua Gasteizen, Jaialdian eta gainera Printzipalean... asko aldatu dira gauzak, ezta?

Beno, Udalak beti ziurtasun batekin jokatu ohi du. Orain badakite funtzionatu dezakeela. Apostu gogorragoa litzateke Herminio eta Miguelito obrarekin gauza bera egin izan balute. Baina edonola ere oso gustora gaude. Gainera azpimarragarria da Udalak koproduzitzen duela "30 Millones de Gilipollas" lana.

Partaide batzuk euskaldunak zarete. Noizko euskarazko lana, hain zaila da antzerkia euskeraz egitea?

Azalpen bat izan dezake horrek. Gipuzkoako edo Bizkaiko talde batek, batez ere Gipuzkoakoa bada, euskaraz antzezlan bat kaleratzen badu lan horrek erraz funtziona dezake Euskal Herrian. Baina Arabarrok egina bada oso zaila da ateratzea.

Nik (Ion) euskeraz egin dut Teatro Gastez-ekin eta oso zaila geneukan Gipuzkoan dauden zirkuitoetan sartzea. Hala ere oso polita iruditzen zait lanak euskeraz egitea. Batek daki inoiz egingo dugun, baina momentuz ez dago gure buruan.

Elkarriketaren amaieran taldekide bakoitzak bere aldetik dituen proiektuak azaltzeko eskatu diegu: Jonek laster bi pelikula estreinatuko ditu; Gorka, Juanma Bajo Ulloaren azken filmean agertuko zaigu; Iñakik zinemaren munduan azkenaldian izandako esperientziak komentatu dizkigu; eta Roberto zuzendariak argi utzi digu hau izan duela antzerki lan bat zuzentzen izan duen lehen esperientzia eta barre artean "seguruenik azkena" dela gaineratu du. Hona hemen, aldizkari honen irakurleoi utzi diguten mezua: "Ez kezkatu, egunen batean behar bada hego haizeak burua berotu eta antzerkia euskeraz egingo dugu; guri ere izugarri gustatuko litzaiguke. Ez da, ordea, gure kontua soilik, zerbait egin eta gero ezin baduzu erakutsi jai daukazu. Eta gainera orain egiten ari garen antzerki mota euskara moldatzea oso zaila izango litzateke".

David Alvez



KIROLDEGIA

CENTRO DEPORTIVO


C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

PRINCIPAL ANTZOKIA BARRUTIK ERAKUTSI
DIGUTE ENTSAIO BATEAN

itzalean jarduten duten antzokiko langileak



GASTEIZKO UDALAK nazioarte-ko XXI antzerki jaialdia abian jarri du. Printzipal antzokiak bi hilabete luzez 21 antzezlan hartuko ditu bere magalean irailaren 26tik abenduaren 8ra bitartean eta era guztietako lanak eskeiniko dira: Els Joglars, La Cuadra, Nacho Duato, Philippe Genty, Sobradun, Entremeses, Antonio eta Cleopatra... izango dira eskenatikian ibiliko direnak, besteak beste.

Jaialdian zehar guztia ondo atera dadin, antzezlari ez den hainbat eta hainbat jendek lanean ihardungo du: udaleko teknikariak, atezainak, leihatiletako saltzaileak, zama arduradunak eta abarrek. Aipatu hauen guztien lana izkutukoa izan arren jaialdia aurrera ateratzeko funtsezkoa da. "Antzokiko lana gogorra da, jende askorekin lan egin behar izaten dugu eta. Talde haundi baten lana koordinatu eta gauza desberdinekin lan egin behar dugu: soi-

Boloa, marroia, guikia, ahoa, ehundegia, teloia, hanka, banbalina, eskenaurrea, atzeko oihala, butakak, eskenatokia, aretoa, fokuak, tramoia, langak... oso ogibide berezi baten hiztegiko hitzak dira horiek guztiak, antzerkiaren munduarenak hain zuzen ere. Datozen hilabeteotan hitz horiek hitzetik hortzera erabiliko dira Printzipal Antzokian. Entsaioak, azken ikutuak, publikoaren erantzuna, kritikak, urduritasuna nabarmenduko da San Prudentzio kalean. Geu Gasteizkook antzerkia barrutik ezagutzeko asmoa genuenez antzezlan baten entsaio batean sartu gara. Bertan Moises udal-langilea, Fernando atezaina eta Lankide zerbitzu enpresako langileekin topo egin dugu.

nua, argia eta abar... Norbaitek esan zuen bezalaxe goizean etortzen zarenean ez dago ezer prestaturik eta gauerako, berriz, den-dena atondua egotea izugarria da", dio Moises Udal-teknikariak.

Punta-puntako antzokia

Printzipal Antzokia eraberritu zenetik punta-puntako antzoki bihurtu da. Lanak 1991ko apirilaren 5ean hasi eta 1992ko ekainaren erdialdera bukatu ziren. Antzokiaren zahar-berritze lanen helburua

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

hauxe zen: Cesareo Iradierrek 1918an Printzipal Antzokiari emandako edertasuna berreskuratzea. Orain garaiko azpiegitura onenarekin horniturik dago eta itzelezko ospea bereganatu du Estatuko beste antzokien artean. "Printzipal Antzokia oso antzoki modernoa da, hona etor-tzen diren konpainiak normalean pozik etortzen dira bai antzokiak eskaintzen dituen abaintalengandik bai eta gure lanagatik ere. Lan giro polita lortzen dugu konpainien eta gure artean, eta eguneko tira-birak lanetik irteetan hitz eginez konpontzen ditugu. Konpania gehienek ondo ezagutzen gaituzte, nola katalanak hala madrildarrak ere. Lan-taldearen barruan gurekin iharduten duten Lankide enpresako langileak aipatu behar ditugu. Guztion artean talde on bat egiten dugu" dio Moises teknikariak.

Principal Antzokia itzelezko ospea lortu du Estatuko beste antzokien artean

Estreinueta udu urduritasuna

Estreinaldi bat egiten den bakoitzean urduritasuna agertzen da langile hauen artean: "Goizetik guztia kontrolatua izan arren beti azken momentuan zeozer falta duzu edo gaizki gelditzen da. Erreflexu onak izan eta azkar lan egin behar duzu dena kontrolpean izateko. Guk jakina nerbioak izaten ditugula baina etxean gaude-nez, ondo dakigu zein den gure lana eta gauzak ondo egiten ahalegintzen gara. Iaz, esaterako, Triciclek bere antzezlan berria

aurkezteko Printzipala aukeratu zuen; dena primeran atera zen eta gure lanarekin oso pozik gelditu ziren" azaldu digu Moisesek.

Fernando atezainak dioenez anekdotak ere ugari izaten dira San Prudentzio kaleko antzokian jaialdiak irauten duen bitartean. "La Casa de Bernalda Alba" antzezlanarako bildotsa ekartzeko Baroja herriraino joan behar izan genuen. Gau horretan izugarritzko elurra bota zuen eta Land Rover-ean arkumetxoarentzat tokia egokitu behar izan genuen hotzez hil ez zedin. Radiadore bat erabli genuen beroa emateko eta gurekin egon zen egunetan biberioia ematen genion gose zegoenean. Funtzioa bukatutakoan bere amarekin bueltatu zen eta artzainak esan zigun gai-xorik zegoela, ama faltagatik".

Gasteizko Udalak aurtengo edizioan erronka berri bat gairatu nahi du. Iaz 26.000 ikusle izan ziren antzerki jaialdian

Aurten bi makina jarriko dute sarrerak banatzeko

eta aurten helburua 27.000ra iristea da. 1993an 22.000 ikusle izan zirenetik urtero ikusle kopuruak gora egin du. Aurten goranzko joera horri eustea dute helburu antolatzaileek. Leihatiletan beste urteetako ilada luzeak sor ez daitezzen eta jendea-ri erraztasun gehiago emateko antolatzaileek aurten bi makina jarri dituzte sarrerak banatzeko. Oso ondo iruditzen zaio neurri hori leihatilaren atzealdean txartelak saltzen aritzen den Mari Mar langileari: "Oso lan gogorra da takilan egotea. Aurten eguerdian ere irekita egongo da eta jende asko hurbilduko da honaino sarreraren bila" Eta zuk eskuratu al duzu sarrerarik? Dagoeneko aurtengo funtzioa hasia da.

Karlos Fdz de Betoño



Asko Gustatzeko. Gutxi Gastatzeko.

BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICAS EN EXCLUSIVA

2.850
PTA



Hona hemen MultiOpticasen Bonardi bilduma eksklusiboa adin guztietara, gustu guztietara eta aurrekontu guztietara egokitzen diren ereduak. MultiOpticasen bermearekin 450 saltokitan. Eta prezio ezinobean. Gastatu gabe gustagarri izateko.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

1996KO URRIA / **geugasteiz** 13
aldizkaria

EUSKARRI, kirolean euskaraz ari

a

zken urteotan
euskarak

Gasteizen aurrerapausu handiak eman ditu, B eta D hezkuntz ereduen hazkundera lekuko. Hala ere, ikasgelatik kanpo murrizta da oraindik euskarak befeganatu duen lekua haur eta gazteen munduan. Errealitate hau aisialdi zein konpetiziorako kirol-eskaintzan islatzen da; ikastetxea utzi orduko, gatzelania baitugu kirol-hizkuntza nagusia. Gauzak horrela, egunerokotasuna euskaraz bizi ahal izateko aukera zabaldu nahi horretan, GEU elkarteak kirol eremuan murgildu da, kirolak toki zabala hartua baitu aspaldian haur eta gazteen munduan. "Hortaz, kirolean ditugun premia eta arazo horiei guztiei erantzun egokia ematearren, GEU elkarteak kirol klub euskaldun baten beharra ikusi du euskaltzaleak kirolean euskaraz aritu ahal daitezen". Egun, ekimen hau gauzatzea lortu du jaio berri den Euskarri kirol elkarteak.



EUSKARRI KIROL ELKARTEAK bi atal nagusi ditu: alde batetik, astialdirako kirolak eta, bestetik, konpetitzekoak. Aisialdirako atalean, iaztik abian dagoen mendi taldeko jarraipenarekin batera, herri-krossetan parte hartzeko talde bat eta ibilaldiak bizikletaz egiteko beste bat sortu nahi dira. Konpetiziorako adarrean, berriz, badira lau talde dagoeneko: gizonezkoen futboleko, lehen maila erregionalean dagoen ekipoa; saskibaloian, badira emakumezkoen 1. senior mailan eta gizonezkoen 3. senior mailan arituko diren bi talde eta areto-futboleko herrialde mailan jokatu duen emakumezkoen ekipoa.

Momentuz, hauek dira egin daitezkeen kirolak baina badago eskaintza hau pilota, atletismo, igeriketa, eskubaloia, etab.era zabaltzeko asmoa. Zentzu berean, konpetiziorako kirolei dagokienez, hasierako txanpa hau helduenei zuzendurik badago ere, "kirol jarduna euskaraz finkatuz gero, ume eta gaztetxoek kirolari ekingo zaio, ikastetxe euskaldunetako ekipok Euskarriren harrobi bilakatuz".

Euskaltzale guztiontzat

Kirola euskaraz egiteko aukera ematen duen Euskarri kirol elkarte hau euskaldun zein euskaltzale guztioi irekita dago, hori

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



**PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ**

bai, argi utziz “klubaren jardunbide nagusia euskara hutsez burutuko dela. Horregatik, edozein kiroletan aritzeko ezinbestekoa izango da euskaraz mintzatzea”.

Kirol elkarte berri honek euskara kirol eremura zabaldu nahi du Gasteizen, era honetan "euskararen prestigioa sendotuz, kirolak ospe handia baitu gaurko gizarte honetan". Une berean, Euskarrik aisialdian kirola euskaraz egiteko aukera eskaini nahi die euskaldun guztiei eta

HURRENGO PARTIDUAK:

urriak 5-6	Alipendi-Euskarri
urriak 12-13	Euskarri -Mercedes Benz
urriak 19-20	Aranako-Euskarri
urriak 26-27	Zuia-Euskarri
azaroak 2-3	Euskarri - Izarra Gorri
azaroak 9-10	Samaniego- Euskarri

Ordutegia zehazteke dago. Etxeko partiduak seguru asko larunbatetan edo igandetan San Martin eskolako futbol zelaian jokatuko dira goizeko 10etan edo eguerdiko 12etan.

Arabako konpetizio ofizialetan eta kirol-federazioetan ere euskararen ahozko nahiz idatzizko presentzia ziurtatu. Are gehiago, "egun gaztelania nagusi den kirol-mundu horretan euskaldunon eragina sentiarazi nahi zaie gasteiztarrei".

Bazkide kanpaina

Jaio berri den kirol elkarteak bazkide kanpaina bizian aurkitzen da. Euskarri mila bat bazkideen bila ari da, gutxienezko laguntza ekonomiko eta soziala lortzeko asmoarekin.

Babes soziala bereganatzeko, esan bezala, Euskarrik nola euskaldun hala euskaltzale guztiei ematen die harrera. Beharrezkoa ikusten baita erdaldun euskaltzaleen artean bazkideak egitea, azken finean elkartearen xederik nagusia euskara gizarte osoan zehar hedatzea baita.

Laguntza ekonomikoari dagokionez, bazkide bakoitzak urtean mila pezeta ordaindu behar ditu. Honen truke, kirolean aritu eta elkarteari laguntzeaz gain,

bazkideak klubaren inguruko informazioa jasoko du etxean (konpetiziotan ari diren taldeen emaitzak eta gorabeherak, jokatu beharreko partiduen berri... eta aisialdirako taldeen informazioa). Hone-taz gain, enpresa eta denda zenbaite-tan eskaintzak eta beherapenak lortzeko aukera izango du. Euskarriren bultzatzaileen esanetan **mila bazkide** inguru lortu beharko lirateke ekimena duintasun-
ez aurrera eraman ahal izateko.

Edu Lopez de Luzuriaga



Pedro Asua, 2, 3 a
01008 Gasteiz
tel / fax: 22 21 53

euskarri kirol
elkarteari lagundu
nahi diot, bazkide
izanik

EUSKARRI entrepresa eta dendetako eskaintzak eta beherapenak lortzen saiatuko da bazkideei begira

Izena: _____

Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: __ solairua: _____

Herria: _____ Posta kodea: _____

Herrialdea: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.000 pzta.** urtean

Kontu korrontea:

--	--	--	--

--	--	--	--

--	--

--	--	--	--	--	--	--	--

entitatea bulegoa kontrol zkia kontu zenbakia

euskara
kirol guztietara



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

mostrongotxoak

berriro hasten delako...

i

railak berekin dakar

oporreh amaiera gehienontzat. Udaren azken aztarnekin batera nork bereari ekin behar dio berriro ere. Eta irailak, beste gauza askoren artean, bat izaten du oso nabarmena: kurtso berriaren hasiera. Kurtso politikoarena, adibidez, eta, batez ere, ikasturte berriaren

hasiera. Oraingoan, Antso Jakituna ikastetxean 6. maila hasi berri duten hainbat gaztek eskolara itzuli beharra nola bizi izan duten azaldu digute. Honako bi galdera hauek egin dizkiegu: Pozik al zaude eskolara berriro etortzearekin? Zer da itzulera honetatik gehien gustatzen zaizuna? Hona hemen beren erantzunak.



POZIK ETORRI naiz lagunak ikusteko aukera dudalako eta horixe da eskolako gauzetatik gehien gustatzen zaidana. Natura da gustokoen dudak irakasgaia.

Iñigo 11 urte

GOGO HANDIZ etorri naiz klasera berriro, bai lagunekin jolasteko eta baita ikasteko ere. 'Mate' da nire irakasgairik kutunena.

Gorka 11 urte

NI PIXKA BAT haserre itzuli naiz eskolara.

Ikastea ez dut oso gustoko eta are gutxiago matematikak eta gimnasia. Alderik onena lagunekin egotea da, baina nahiago nuke opor luzeagoak izatea.

Danae 11 urte

OSO GUSTORA etorri naiz berriro eskolara, lagunengatik batez ere. Matematikak asko gustatzen zaizkit.

Sara 10 urte

OSO POZIK etorri naiz lagunak berriro

ikusteagatik. Ikasi ere gustora egiten dut, 'Mate' bereziki.

Edurne 11 urte

ITZULERA ONA izan da baina lehenengo egunean bakarrik. Orain akabo! Lehen eguna polita da lagunak berriro ikusten dituzulako baina gero etxekolanak eta dena daukagu. Mateak ditut gustokoenak.

Javier 11 urte

NI POZIK itzuli naiz,

lagunengatik batez ere. Ikastearena, beno... gutxi gora-behera... 'Mateak' bereziki atsegin ditut.

Harkaitz 10 urte.

NI OSO POZIK etorri naiz eta oraindik pozik jarraitzen dut. Mate, euskara, eta ingurugiroa ditut gustokoen, baina lengoiaia batere ez.

Raul 11 urte.

GUSTORA etorri naiz, horrela larunbatetan ohean lasai egoteko aukera dut.



zure egoitza berria Lejarreta kalean

HEGOALDE
euskaltegia.

Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Lengoaia eta mate dira nire irakasgaiak kutunenak.

Alba 11 urte

GUSTORA EGIN dut itzulera, lagunak berriro ikusteagatik batez ere. Gimnasia dut gustokoena.

Sarai 11 urte

BUENO... ez naiz oso pozik etorri, oporrak laburregiak dira. Gainera, eskolara etortzeko goizegi esnatu behar duzu. Gehien gustatzen zaidana matematikak eta lagunekin ibiltzea da.

Nerea 11 urte

BAI, NI GUSTORA etorri naiz. Lagunak ikusteagatik eta ikasten hasteagatik ere. Lengoaia da nire ikasgai kutunena. Bestalde, euskara eta 'inguru' dira gutxien gustaten zaizkidanak.

Itziar 10 urte.

ONDO EGON da itzulera lagunak ikusteko aukera duzulako. Ikastearena... ba, beno... Plastika dut gogokoena eta lengoaia da gutxien atsegin dudana.

Iker 11 urte

ONA IZAN DA itzulera lagunak ikusteko eta baita ikasteko ere. Matematikak dira gehien gustatzen zaizkidanak eta gutxien euskara.

Maidar 10 urte

POZIK ETORRI naiz nire

lagunekin eta irakasleekin egoteagatik. Lengoaia dut gustokoena eta euskara da okerreina.

Kristina 11 urte

GOGOA NUEN eskolara itzultzeko. Dagoeneko etxean aspertzen hasia nintzen. Mateak gustatzen zaizkit bereziki eta lengoaia ez dut batere atsegin.

Iker 10 urte

ONDO EGON DA itzulera, gogoa nuen lagunekin egoteko, nahiz eta etxean ez aspertu. Mateak ditut gogokoena eta 'inguru' ez zait gustatzen.

Vanessa 11 urte

Edu Lopez de Luzuriaga



kan roak geu GAUEZ

GOIZEZ

Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42
Ana 26 65 95

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maidar 24 90 62
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiralean)



Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23
Maidar 24 90 62

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maidar 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35
Estitxu 25 99 60

Umeak zaintzen ditugu



Portal
del Rey 9

GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Joakin Salazar:

“arabar guztientzat zabalik dauzkagu ateak”



DONOSTIAKO alde zaharrean urkitu dugu Arabako Etxea, Pescaderia kaleko 8.ean hain zuzen ere. Lehen begiradan elkarte honen kanpoaldea ikusita ez da ezer berezirik antzematen, alde zaharreko beste tabernak bezalakoa da. Baina arreta handiagoz erreparatuz gero, sarrerako atearen bi aldeetan Arabako Etxea-Casa de Alava idatzita duten kartel bana ikusiko duzu. Horretan behintzat Gasteizen ikusi ditugun gisa honetako etxeen antzekoa da: taberna lehenengo eta barrualdean soilik

bazkideek erabil dezaketen gela handi bat. Azpian sukaldea eta jangela dotore bat bai bazkideek eta baita bazkide ez direnek ere erabil dezaketena. Tabernaz arduratzen diren lagunek egunero bazkariak ematen dituzte bertan.

Arabako Etxeko presidentea den Joakin Salazar hasiera-hasieratik euren elkartearen izaera argi azaldu nahi izan digu: “Gu ez gara gastronomi elkarte eta ez gaude etxe erregionalen federazioaren barruan. Gurea elkarte kulturala da soilik”.

Zenbat kultura hainbat ohitura atalean

Espainiako eskualde desberdinetatik garai batean lan bila etorritako etorkinek sortutako *etxeak* izan ditugu sail honetako protagonistak. Gasteizen ordezkariak duten Galizia, Extremadura, Andaluzia, Asturias eta Aragoiko etxeak ekarri ditugu orri hauetara. Atal honekin amaitzeko, kanpoan bizi diren arabarrek zer egiten duten jakin nahi izan dugu, ordea. Horretarako Donostian aurkitu dugun Arabako etxeari bisitatxo bat egin diogu □



Arte Ederrei buruzko Sailik
zabalena ezauntu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatzkiloak	olioak
akwarela	kaballetzak	etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Urtiasolo 22. Pabilloia 23 47 00 Fax: 23 49 14

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe

Kutxileria 23

**ez gara gastronomi
elkartea, ezta etxe
erregionala ere. Gurea
elkarte kulturala
da soilik**



1974ean sortu zuten Arabako etxea. "Arabar ugari zegoen Donostian eta bazuten nolabaiteko harremana beren artean baina ez zuten biltzeko leku egokirik". Joakinek adierazi digunez, garai hartan Donostian elkartzen ziren arabarrak egin-kizun zehatz bat burutzen zuten: "Gasteizko zahar-etxearentzat dirua biltzen zuten bertara bidaltzeko. Eta garai hartan Araban zeuden aurrezki kutxek diru dexente biltzen gurela ikusita lokal hau erosi eta guri utzi ziguten. Orduan sortu genuen Arabako Etxea eta harrezkero hementxe gaude". Sorrerako estatutuak elkartearen handinahiaren berri ematen dute: "Estatutuak egin zirenean gauza ugari egin nahi izan ziren eta besteen artean Arabatik etorritako ikasleentzat etxe bat sortzea aurreikusten zen, baina ez zen inoiz horrelakorik egin".

Joakinek gogoan du lehenago ere Donostiako Boulevard-ean egon zela "Colonia Alavesa" izeneko elkarte bat.

Joakin Salazarrek hamaika urte daramatza elkarteko presidente lanetan eta urte horietan guztietan izan dira zenbait gora-behera elkartearen baitan. "Vital Kutxarekin arazoak izan genituen orain urte batzuk lokalaren egoera zela. Etxearen egoera kaskarra aitzakiatzat hartuta hemendik bota egin nahi gintuzten. Erabaki horretan bertako bazkide batzuk ere izan zuten zerikusirik. Azkenean konpondu ahal izan genuen arazoa baina bazkide batzuekin istiluak izan genituen eta biltzar batean bazkide horiek kanporatzeko erabakia hartu zen."

Tanbor hotzak

Une honetan 194 bazkide ditu Arabako Etxeak eta bazkide gazteak erakartzea da Joakinen helburua. Izan ere etxea sortu zen garaian bazkideen adina oso altua zen eta horen ondorioz elkarteak nahiko baja izan ditu. "Elkarteari bizi handiagoa emateko jende berria behar dugu eta une honetan 18 ikasle ditugu bazkideen artean".

Arabar etxeak antolatzen dituen ekintzen artean San Sebastian Egunko tanborrada aipatu behar da. "Azken sei-zazpi urteetan tanborrada bat ekartzen dugu Gasteiztik egun horretarako eta arrakasta handia izaten du". Aurten, horrez gain, bazkide gazteenek beren barrika eta tanborren taldea sortu nahi dute, egun horretan kalera atera eta ondo pasatzeko.

Txangoak izaten dira, bestalde, Arabako Etxekoek antolatzen dituzten ekintzen artean arrakastatsuenetarikoa. "Aurten Avila eta Segovia aldean ibili gara eta iaz Picos de Europa ingura hurbildu ginen. Eta urteroko bidaia luze horiez gain Araba aldera ere bidaia ugari antolatzen ditugu".

Mus eta Tute txapelketak ere antolatzen dituzte eta horietara gainerako herri-elkarte eta gastronomi elkarteak gonbidatzen dituzte.

Arabar Errioxako ardoa

Arabak sortzen duen produktu ospetsuenetarikoa dugu ardoa eta egun mundu

osoan nahiko ezaguna bada ere garai batean ez zen horrela gertatzen. Joakinek adierazi digunez eurak izan dira Arabako ardoa donostiarren artean ezagutarazten eta zabaltzen gehien ahalegindu direnak. Asmo hori aurrera eramateko Arabaren eguna ospatzea otu zitzaion. Horrela bada, ardo ekoizleekin harremanetan jarri eta Arabaren Eguna antolatzen hasi ziren Donostian. Egun honen bitartez, piskanaka-piskanaka Arabar Errioxako ardoaren presentzia asko ugari omen da Donostiako tabernetan. Gaur egun, ordea, ez dute horrelako publizitaterik behar, "jadanik bezeroak eginak dituztelako eta harreman zuzena dutelako eurekin". Egun horren antolaketaz gain, aurtengo Aste Nagusiko jaietan Gasteizi eskainitako jai egunaren antolaketan ere parte hartu zuen Arabako Etxeak.

Ekintza hauez gain, kultur elkarteak direla eta, ezin ahaztu daitezke urte osoan zehar antolatzen dituzten hitzaldi eta konferentziak. Arabako herri, monumentu, gastronomia edo ohitura eta legeei buruzko hitzaldiak eskaintzen dituzte. Izan ere, Arabari buruzko ezagutza ahalik eta gehien zabaltzea da etxe honen helburu nagusia bai eta bertara hurbiltzen den edozein arabarri leku atsegina bat eskaintzea: "Arabar guztientzat zabalik dauzkagu ateak. Idatz ezazu edonor etor daitekeela gurera. Hala ere, hona bazkaltzera etorri nahiez gero, komeni da badaezpada aurrez deitzea horrela lekua gordeko baitiogu". Badakizue, beraz, inoiz Donostiara joanez gero, nora jo behar duzun.

Solasaldiaren amaieran zera galdetu diogu: Gasteizen aurki daitekeen zer botatzen duzun faltan Donostian? Erantzuna piska batean pentsatu ondoren honako hau bota du: "Egia esan Donostia bezalako lekuri aurkitzea ez da batere erraza, munduan ez dago beste bat horrelakorik! Baina behar bada Gasteizek duen lasaitasuna hartuko nuke hemen".

Xabier Zabaleta

BAR KLAKÉ
KVTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

euskaldun izan nahi dugulako
**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**

Zurekin 600.000 irakasle izango gara
2.300.000 ikasle euskalduntzeko

Jose

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

izena eman n!

DUTXEN ETXEA: oraindik ere beharrezkoa



O

rain dela ia 50 urte, 1948. urtean sortu zen

Gasteizko Dutexen Etxea eta, Esther bertako langileak dioenez "Udalarena izan da beti". 60 lagun inguruk erabiltzen dituzte egunero egunero Correría kaleko dutxa publikoak. Datu horrek argi azaltzen du Dutexen Etxeak beharrezkoa izaten jarraitzen duela.

XX. MENDEAREN erdialdean, Gasteizko Dutxa Etxe publikoaren sorrera, inguruko bizilagunen beharrei erantzuteko helburuarekin egin zela suposatzen da. Harrigarriagoa da, ordea, 1996. urtean etxe berberak eguneko 60 bezero inguru duela jakitea; hau da, oraindik ere beharrezkoa dela. "Etxean komuna ederra, ur beroa eta berogailua dutenek zail dute hori ulertzea baina inguruko auzokideen artean asko eta asko dira horrelakorik ez dutenak" azaldu du Estherrek.

“hippiak etorri ohi dira eta doan dela jakitean oso pozik jarri eta formal asko ibiltzen dira, zertarako agobiatu?”

Alde Zahar guztiko biztanleek erabiltzen dute Dutexen Etxea: "Ez pentsa Correría eta Zapako auzokideak bakarrik datozenik, Nueva Dentro eta Herreriakoak ere badatoz; alde honetan etxe gehienek egotera berdintsua baita".

Ardatz itzulpen eta euskaraz zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KLASEAK

matematika
fisika irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea
kimika
biologia
geologia ☎ 26 03 54

60 lagun inguru dutxatzen dira egunero etxe berezi horretan, "eta ostiral-larunbatetan 80 inguru, bai gutxienez". Erabiltzaileek astean bizpahiru aldiz egin ohi dute Corrieriantzako buelta.

Izan ere, Gasteizko beste auzo gehienetan bainontzi bana duten komun pare bat izatea normalena den arren, Alde Zaharreko pisu askok komunzuloa baino ez dauka. "Azken urteotan, batzuek komuna eraiki dute, beste batzuek ordea, ez dute dutxa jartzeko lekurik ere, gehienak etxe txikiak dira eta". Estherrek lan horretan aritu den urteetan jakin duenez, bizilagun batzuek dutxa txikia izan badute, baina ur beroa lortzeko zailtasunak dituzte; horrelakoetan, erosoago omen da Corrieriako etxean dutxatzea.

Erabiltzaile gehienak ezagunak izatea Estherren lana errazago egiten du. "Bai, sekulan ez dut arazorik izan. Hona jendea beharragatik etortzen da, beraz, zergatik sortuko dituzte arazoak?". Udan, Jazzaldia eta Jaiei usainean Gasteizera hurbiltzen direnei buruzko kexarik ere ez zaio Estherri entzuten. "Hippiak etorri ohi dira

“hamar ogerleko kokratuta ere, Udala ez zen aberastuko eta beharra duen jendeari laguntzea garrantzitsua da”



eta hoiei beren kasara ibiltzen utzi behar zaie; gainera doan dela jakitean oso pozik jarri eta formal asko ibili ohi dira, zertarako agobiatu, orduan?”

Dutxen Etxeak duen langile bakarra da Esther, zerbitzu on bat emateko behar den guztia egitea bere esku dago: kalderak piztu, garbiketa... dena.

Ura baino ez

Dutxen Etxeak bezeroei ematen dien gauza bakarra ura da, ura eta etxea, noski, beste guztia norberak jarri behar du (xaboia,...). Ura eta etxearen erabilera doan ematen ditu duela bi urte t'erditik hona. Ordurarte 45 pezeta inguru ordaindu behar zen dutxa bakoitzeko. "Ez da asko, baina, ez pentsa, ama batek bizpahiru seme-alaba ekarri behar baditu astean hiru bider... dutxak hartzen gastatzen zuen diruarekin haurrentzako esnea erosteko adina zuen, eta hona datorren jendeak ez dauka dirua soberan".

Estherrek ondo deritzo dohainik izateari, oso ondo: "Hamar ogerleko kokratuta ere Udala ez zen aberastuko eta beharra duen jendeari laguntzea garrantzitsua da".

Leire Lopez de Aberasturi

Floridako altxorra !

35

adaka M madinabeitia

altzariak • apaindurak

Florida, 35 - tfnoa: 25 93 59


GASTEIZ

Pop, Rock eta Musika berrien astea Gasteizen

a.

Celada, L.M.
Tellería, J.A.
Gereñu edo

M^aJ. Estívariz izenak ezagunak dituzu? Eta J. Antoñana, R. Urrutia edota A. Blascorenak? Hauexek izan ziren bada, abuztuaren 26tik 31ra bitartean burutu zen "Pop, Rock eta Musika Berrien Astea" izeneko ikastaroaren irakaslego zerrenda osatu zutenak. Bateria, bajo, kitarra, MIDI programazioa, edo grabaketa eta soinu arloetan murgildu nahi izan zuenak aukera ezin hobea izan zuen Musika Etxean. Goiz eta arratsaldean izan ziren klaseak eta ilunabarretan, berriz, Plaza Berrian zuzeneko emanaldiak.



EZ ZEN AZKEN orduan sortutako ideia bat izan, ez. Arrakasta handiz burutu berria den Pop- Rock seminarioa egiteko asmoa aspalditxotik zera-bilen buruan Alberto de la Casak. Musikariak eta Udala prest jarri zirenean, leku on bat topatu eta Virginia, bere alaba, eta Jontxu Sáez de Herediaren laguntzarekin musika mintegia anolatu zuen. Abian zen, jada,

musikazale guztiek beharrezkotzat jotzen zuten mintegia! *Abuztua ez da garairik aproposena ikastaro bat antolatze-ko.*

Arrazoi duzu. Jende asko oporetan izaten da eta gainera, proiektua berandu onartu zigitenez, oso denbora gutxian antolatu behar izan genuen. Hala ere harrera oso ona izan

zuen gure deialdiak: ehun ikasle inguru matrikulatu ziren.

Zuek asmatutako ideia da mintegiarena?

Musika maite dugun guztiok dugun ideia dela esango nuke nik. Gure ideia? Hobe beharrezko ideia dela esatea.

Bajua, kitarra, bateria, programazioa, grabaketa eta



GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33



AGIRRE
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK

Tfnoa: 989 50 73 18 **GASTEIZ**

soinu ikastaroak. Hala ere, ahotsaren alorrean hutsunea nabari izan dugu.

Bai, egia da. Programa egin genuenean, ahotsa ere kontuan izan arren, ez genuen irakasle-rik topatu. Zaila da rock edo pop musika lantzen duen abeslari-irakasle on bat aurkitzea. Kantari ona izan zaitezke, baina pedagogia aldetik...

Ez duzue Gasteiztik atera behar izan irakasle onak topatu ahal izateko.

Ez, gure hirian musikari zoragarriak ditugu, primerakoak. Ideia azaldu genien eta, lanpeturik egon arren, leku bat egin zuten musika aste honetan parte hartzeko. Oso ondo portatu ziren gurekin. Gainera, klaseak bukatzen zituaztenean hemen geratzen ziren, ikasle moduan. Laster ulertu zuten horrelako mintegi batek duen garrantziaz. Beraiek, zoritxarrez, musikan hasi zirenean ez zuten horrelako laguntzarik izan.

Zer ikas daiteke sei egunetan?

Ikasleek asko ikasi dute. Musika-karen hizkuntz amankomuna bereganatu dute ikasleek. Aurreritzi beldurra galdutxoa da. Lagun askok uste du musikaz ez dakiela ezer solfeo-rik ez duelako. Beste askok pentsatzen du ez dela gai izango bestelako erritmoak ikaste-ko. Hemen konturatu dira horiek tontakeriak baino ez direla.

Ikasle guztiak talderen batean arituak ziren?

Ez, ehuneko hirurogeita hamar inguru zen talderen batekoa. Besteek, nahiz eta taldea osatzeko asmoa izan, oraindik ez dute egin.

Plaza Berriko kontzertuei esker, izan zen eskenatokia lehenengo aldiz zapaltzeko aukera izan zuenik, ezta?

Astean zehar jo zuten taldeak

arituak ziren zuzenekoetan, baino esan liteke horietako batzuentzat ekipo on baten laguntzarekin jotzen zuten lehen aldia izan zela. Larunbatekoa, berriz, berezia izan zen. Horixe bai izan zela askorentzat lehendabiziko aldia. Klase teorikoetan abesti batzuk pres-tatu genituen "konbo" moduan; talde ezberdinetako eta talderik ez duten musikariak nahastuz hain zuzen ere. Egun horietan ikasleek egindako lana ikusi eta entzun ahal izan zen larunbatean. Emanaldi horrekin amaitu genuen aurtengo ikastaroa.

Udaletxeak lagundu al dizue seminario hau gauzatzen?

Bai, eurak arduradunak izan direla esan liteke. Jasotako diru laguntzari esker oso gutxi izan da ikasleek ordaindu behar izan dutena: bostehun pezetak, alegia. *Zer esan behar zaie instituzioei rock and roll kulturatzat har dezaten?*

Gu saiatu gara estilo ezberdine-tako musikariak batzen. Horixe da bidea: aurreritziak ahaztu eta denok batera lanari ekin. Elkar-te moduan indar handia egin daiteke. Bakarrik baldin bazo-az, ordea, ez dizute entzun ere

egiten. Kaña eman behar zaie. Eurak hobetu beharrean daude, ezta?. Egia da gure hirian badu-gula nolabaiteko sentsibilitatea. Hor ditugu besteak beste, Jazz Jaialdia, Aste Korala edo An-tzerki programa zabala, baina horrekin, ona den arren, ez dugu konforme egon behar. Horrexegatik esaten dizut kaña eman behar zaiela, geldirik egon ez daitezen, geroa eraiki dezaten, hiritar guztiak asetzeari lortu arte.

Eta zuek, nortzuk zarete?

Musikari lotuta bizi garen "zintzilikatuak" gara. Aspal-di-

ZER ENTZUN ?

Hona hemen urrian Elefante Blanco aretoak eskainiko dizkigun zuzenekoak:

Urriaren 4ean
JAMES TAYLOR QUARTET
Urriaren 11n
URIAH HEPP
Urriaren 18an
TRADICIONALES DE CARLOS PUEBLA.

tik ari gara honetan. 83. urtean bertako musika grabatu eta ekoizteko estudio baten beharra ikusi genuen: hasieran CUVY-ren izenpean aritu ginen, gero BIKO, eta gaur egun DBK. Hortik aurrera lan ugari izan dira gure estudioetatik atera direnak. Aipatu daitezke zine-rako grabaturikoak (gehienak B. Mendizabalen eskutik): La Regenta telesailaren musika hemen grabatu zen, baita Extasis, Cachito edota Así en el Cielo como en la Tierra filmee-nak ere.

Pop eta rock talde edo bakarlariei dagokienez, orain gogoratzen ditut Segundo Banana, R. Ordorika, Ogara, Korroskada, Amaia Uranga, Replicantes edota Demalafé bezalako ize-nak.

Ikastaroa amaitutakoan, ikasle-eritziak jaso al duzue?

Bai eta esan behar dugu orokor-rean oso gustora egon direla. Irakasleekin ederki moldatu dira, baita gaiekin edota kurtso-aren egiturarekin ere. Guztiz beharrezkoa ikusi dute honi jarraipena ematea. "Rockserva-torio" hitza askotan errepikatu ohi da eta nire ustez "Rockser-vatorio" baten premia dugu. Hitz bitxia, ezta?

Eta hemendik aurrera, zer?

Plaza Berriko kontzertuak gra-batu egin genituen CD bat argi-taratzeko asmoz. Horixe izango da bigarren urratsa. Disko hori ez da salgai jarriko, baina zuzenekoetan parte hartu zuten tal-deek beren burua aurkezteko erabiliko dute. Denek abesti bat izango dute bilduma horretan. Laster bilera bat izango dugu Udaleko Kultur Sailekoekin sei egun horien emaitzak aztertze-ko, eta jakina, urtean zehar ikastaroak mantendu behar direla konbenzitzen saiatuko gara, edo gutxienez, oporraldie-tan.

Txabi Arnal Gil



LLANOS ANAIAK:

<iron men> euskaldunak



e

uskara eta
ingelesa
nahasirik?...

“Baina zer da hau? Inola ere ez, horrelakorik! Kazetari petral hori! Llanos anaiak burdinezko gizonak ditugula esan nahi baduzu, horixe jarri eta ez yankee-keria itsusi hori! Kirol kazetari guztiak beti berdin zabiltzate: ‘playmaker’, ‘mister’, ‘overbooking’..., eta orain, zuen azken erasoa gure euskara kuttunaren aurka: ‘Iron men’. GEU GASTEIZen ez da horrelakorik gertatuko, ezta?”

ALDIZKARIKO zuzentzaileari ederrak entzun behar izan eta gero, lanari ekingo diogu beste behin ere. Urriko kirola bat izan beharrean, hiru dira, triatloiak hiru kirol batzen baititu bere baitan: igeriketa, txirrindularitza eta maratoi erdia ala maratokia. Esan beharrik ez dago, kirol honetan aritzen diren gizon-emakumeek langileak eta gogorrak izan behar dutela, bestela akabo. Horren lekuko munduan egiten den triatloi txapelketarik ospetsuena dugu, Hawaiko ‘Iron man’ alegia. Bertan txapelduna den kiro-

laria burdinezkoa omen da, eta ez da gu-txiagorako, lasterketa izugarria baita: Lau kilometro igeriketan, 180 kilometro txirringa gainean eta, bukatzeko, 42 kilometroko maratokia. Aitaren batean egiteko moduko proba, alajaina! Hileko gure kirol protagonistek ez dute Hawain parte hartu oraindik, baina aurrerantzean Hawain ere zeresanik emango dute, Munduko eta Europako txapelketetan aurreneko postuetan ibili dira eta.

“96a ona izan da guretzat”



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak
1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ



**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

LLanos anaiak dira gure "Iron men" indartsuenak. Biak arabarrak, biak euskaldunak, telefonoa hartzean "Bai" dioten horietakoak. Hector da anaia nagusia; 24 urte dituen gasteiztarak aurten irabazi du lehendabizikoz Estatuko txapelketa. Enekok aldiz, 19 urte dauzka. Orain arte gazte mailan aritu da, baina datorren urtetik aurrera nagusiekin izango du lehia. Anaia nagusia bezalaxe, Eneko ere Estatuko txapelduna dugu; ikusten duzuen bezala, bi arabarrak puntako kirolariak dira, haiekin gus-tora eta luze hitz egin dugu, eta hona hemen emaitza.

Helburua: Sidneyko Olinpiada

Gaur egun Hector eta Eneko, ezbaierik gabe, Estatuko kirolaririk onenak ditugu triatloian. Igeriketan hasi ziren gazte bi horiek Sidneyko Olinpiada dute helburu. Aurten egindakoarekin pozik daude: "96a urte ona izan da guretzat. Eneko Munduko norgehiagokan laugarrena sartu zen helmugan eta hori ez da egunero lortzen den zerbait". Kirolari australiar, alemaniar eta frantsesak gehiengo diren kirol hone-tan punta-puntako bi euskaldun ditugu. "Frantzia eta Alemanian triatloiak laguntza handiak dauzka, hemen berriz, kirol berria da eta ez dugu sosik jasotzen. Ia musutruk egiten dugu eta, beraz, ezin diogu beharrezkoa den denbora eskaini. Ikasketak, lana, kirola... gauza gehiegi dira denak batera egiteko" aitortu digute bi anaiek.

Horrekin batera, kirola asko aldatu da azken urteotan. Lehen, inolako plangin-tzarik gabe, xerra ederra jan ondoren, kilometroak eta kilometroak egiten zituen kirolariak. Egun, ordea, bestelakoa da entrenamendua: "Orain helburuei begira egiten dugu lan. Urteko aste zehatz batzuetan sasoian egon behar duzu eta hori-xe da entrenatzailearen lana. Hasieran gu ginen geure entrenatzaileak, baina beste garai batzuk ziren haiek, eta hori ere alda-tu behar izan genuen".

Komunikabideekin haserre

Kirol hau gure artean zabalduena ez baldin badago ere Euskal Herriko zenbait tokitan triatloia probak antolatzen dira. Araban antolaturiko azken triatloia laster-keta Garaion izan zen. Orain dela hiru hilabete egin zen norgehiagoka polita ger-tatu bazen ere, Llanos anaien iritziz lekua ez zen lekurik egokiena: "Garaio txikiegia da horrelako txapelketa bat antolatzeko. Eskerrak eguraldi kaxkarra egin zuen egun hartan! Eguraldi onarekin badakizu zelan egoten diren inguru hartako zelaia eta urtegia? Jendea gainezka. Hori bai, antolatzaileen lana ezin hobea izan zela aipatu beharra dago". Erantzun horrekin hurrengo galdera eginga zegoen: Zuen ustez, orduan, zein da Arabako lekurik ederrena triatloian aritzeko? "Legutianoko

**antza denez,
triatloiak ezin du
autobiderik moztu**



urtegia igeri egin ondoren, Zigoitiarako bidea hartuko genuke bizikletaz, han ibil-bide ederra egin eta Gasteizen bukatuko genuke korrika egiten. Baina, antza, tria-tloiak ezin du autobiderik moztu" gainera-tu du Enekok ironiaz. Elkarriketatuek ez diote gezurrik, antolatzaileek ibilbide hori aurrikusi baitzuten. Halere, Enekok dioe-nez, trafikoa zela eta ezin zen aurrera era-man.

Bukatzeko, komunikabideei buruz min-tzatu gara. Llanos anaiak haserre dira eguneroko komunikabideekin eta, egia esan, ez da harritzekoa. Deportivo Alave-sen eta Baskoniaren berri egunero dauka-gun bitartean, beste kirolari batzuek, Hec-torrek eta Enekok kasu, ez dute inoiz orrialderik betetzen: "Alaves-Baskonia, Baskonia-Alaves, beti berdina da eta gai-nerakoak noski, ezer ez. Etxean hori dela eta haserratu egiten dira, batez ere, ama".

Akatsa konpondu nahian, beraiekin hitz egin dugu. Ez dakigu ama haserre ala pozik egongo den, baina lasai emakume. Zure semeek zeresanik emango dute Sid-neyn edota Hawain eta orduan guztiok hartu beharko dugu aintzakotzat euren lana. Hala bedi.

Ismael Diaz de Mendibil



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldian •



Ezagut ezazu zeure burua erasokorra al zara?

Burunburu Komina doktorea

n

olakoa naiz ni?

Seguruenik aspalditik zeure buruari egiten diozun galdera da hori, baina zoritxarrez ez duzu erantzun egokirik aurkitu oraindik. GEU Gasteizek eta Burunburu Komina doktoreak horretan lagunduko dizuegu hemendik aurrera. Zuk orrialde hauetan agertuko diren test-ak erantzutea besterik ez duzu egin beharko. Sail berri honekin, hemendik aurrera, nor naiz ni, nondik nator, nora noa eta gisa horretako galdera metafisiko guztiei erantzuna aurkituko diezu. Ez duzula sinesten? Aproba besterik ez duzu egin behar.



Beherala haserretzen zara? Zure onetik ateratzen zaituztenean burua galtzen duzu? Une jakinetan bakarrik edo egoera guztietan izaten zara erasokorra? Azpian agertzen diren egoera desberdinetan zure jokaera nolakoa den ikusi eta berehala jakingo duzu erasokorra zaren ala ez.

1 *Kalean zoaz lasai-lasai eta bat-batean biguina dagoen zerbait zapaldu duzula sentitzen duzu: txakur kaka da. Zer egiten duzu?*

A

Hurrengo egunetan suerte haundiagoa izango duzula pentsatuz, poz-pozik ahalde egiten duzu. Hori bai, zikina garbitu gabe.

B

Ozenki bat bestea atzetik madarikazioak botatzen dituzun bitartean zapatak garbitzen

dituzu eta gizaki guztioi horrelako gauzak gertatzen zaizkigula pentsatzen duzu. Zer egingo diogu ba!!!

C

Zapata zikina hartu eta txakur jabearengana joaten zara. Ondoren, jabearen jantziekin kakaztutako zure zapata garbitu egiten duzu.

2 *Autoan zoaz izugarritzko presarekin baina zoritxarrez 20 kilometro orduko abiaduran doan gidari batekin topo egiten duzu. Ezinezkoa zaizu bera aurreratzea. Zer egiten duzu?*

A

Asper-asper eginda bere atzean segitzen duzu abiadura noiz azkartuko duen zain.

B

Klaxona jotzen diozu ea horrela ohartzen den errepidean bera bakarrik ez doala.

TESTU LIBURUAK
eskatu zure testu liburuak
eta ez estutu gero

Koldo Mitxelena • deskontu bereziak

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 *errikoia*

GASTEIZ

PIPERMINA

DENDA

arropa
eta
osagarriak



KUTXI, 81

C
Azeleradorea zapalduz kolpetxo bat ematen diozu bere autoaren atzealdean. Horrela alde batera jarriko da zu pasatzeko.

- 3 *Etxean zaude lotan eta goizeko lauretan esnatu egin zara batean. Kanpoan zarata handia entzuten da. Kotxe batek irratiko musika topean jarrita dauka eta ezin duzu gehiago lorik hartu. Zer egiten duzu?*

A
Musika behintzat ona dela pentsatuz lo egiten saiatzen zara.

B
Loak hartzeko ardiak zenbatzen hasten zara

C
Lorontzi bat hartu eta auto gainera botatzen diozu.

- 4 *Etxetik irtetere zoazen unean atean txirrina jo dute. Irakurleen zirkulokoak dira: majoak dira baina baita astunak ere. Zer egiten duzu?*

A
Sartzera gonbidatzen dituzu eta zein liburu dituzten galdetzen diezu.

B
Presa askorekin zabiltzala esaten diezu eta beste egun baterako geratzen zara eurekin.

C
Ez diezu pasatzen uzten eta mesedez gehiago zure etxera ez itzultzeko eskatzen diezu, euren kalterako izango dela eta.

EMAITZAK:

Zure erantzunetan hiru A edo gehiago badituzu... ZE MUNDUAN BIZI ZARA ALPROJA HORI!!!!

Hiru B edo gehiago batu badituzu... ESNATU MESEDEZ, GARAIA DUZU ETA!

Zenbaketa egin ondoren hiru C edo gehiago badituzu... HORRELAKO HARPIDEDUNAK NAHI DITUGU

HITZALDIAK

EUSKARA MINTZATUA, ORAINA ETA ERRONKA BERRIAK

urriaren 29tik azaroaren 28a arte arratsaldeko 7etan
Landatxo Gizarte-etxean
astearte, asteazken eta ostegunetan

AURREKO URTEETAN egin den bezalaxe, aurten ere ikasturte berri bati ekin diote elkarlanean Gasteizko Udaleko Kultura Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Emaitza?... Euskara mintzatuari buruzko ikastaroa.

Mende laurden luzea joan da Arantzazun Euskara Batuaren oinarriak ezarri zirenetik. Beste hainbeste ez badira ere hamarkada luzea joan da euskarazko irakaskuntza, euskarazko irratia eta telebista zabaltzen hasi zirenetik. Euskalgintzan eztabaida berriak plazaratzen ari dira.

Eztabaida eta kezka horien ildotik dator oraingo programa. Hain zuzen ere, euskararen etorkizunari begira euskara mintzatuari gaur egun aitoritzen zaion garrantzia kontuan hartuz honen inguruko eztabaida kaleratu nahi izan dute.

Ikastaroan parte hartzeko, izena eman behar da aurretik Villa Suso jau-regian eta matrikula-saria ordaindu (1.500 pta, edo 750 pta langabe bazara). Matrikula-epea urriaren 14an hasiko da goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte.

antolatzailea:
Gasteizko udala • kultura saila



1. Kazetarien hizkera
Jon Sarasua
2. Euskarazko umorea eta hizkera erakargarria
Kike Amonarriz
3. La oralidad de los medios de comunicación
Toni Molla (Valentziako Unibertsitatea)
4. Bikoizketa eta euskara mintzatuaren kalitatea
Xabier Amuriza
5. Komunikabideen euskara mintzatua
Joxerra Gartzia
6. Bertsolari gazteen hizkera
Jexux Mari Irazu
7. Gaztediaren hizkera hemen eta orain
Imanol Esnaola
8. Ahozkaritza eta ahoskaritza
Fito Rdz. Bornaetxea
9. Euskara mintzatuaren jasotze lanaz
Iñaki Gaminde
10. Ahozko euskararen batasunaz
Jose L. Alvarez Enparantza
11. Ahozko euskararen batasuna eta Euskaltzaindia
Pilarxo Etxeberria
12. Bertsolaritza eskolan
Jose Antonio Aranburu
13. Euskara mintzatuaren aberasgarriak (bizkaiera)
Juanjo Respaldiza
14. El habla de los jóvenes de Barcelona
Xabier Vila (Bartzelonako unibertsitatea)





Aurten, berriz, jarraitzeko prest gaituzue. Aurrekoetan bezala, hilabetero, aldizkari honetan argitaratuko ditugu irtenaldi bakoitzaren xehetasunak. Ateraldi

Agur bero bat eta ongi etorri, beraz,
mendira GEUrekin etorri nahi duzen
guztioi!

Aramaio

OPOR LUZEAK pasatu ondoren,

GASTEIZ

96-97

Bertsotan ikasi eta ondo pasa !!





Gasteiz-Eskibel	1995-2-19	29 ibiltari
Gasteiz-Argantzun	1995-3-19	30 ibiltari
Aratz	1995-4-23	9 ibiltari
Pagogan-Gasteiz	1995-5-21	41 ibiltari
Urdiain-Santa Marina	1995-10-22	15 ibiltari
Jarindo	1995-11-19	17 ibiltari
Gorbeia	1995-12-17	17 ibiltari
Lasarte-Arrieta-Lasarte	1996-1-21	40 ibiltari
Mirutegi (Aizkorriren ordez)	1996-2-25	16 ibiltari
Lezea-Olano-Hirumugarrieta	1996-3-17	13 ibiltari
Kurtzebarri	1996-4-21	16 ibiltari
Valderejo	1996-5-26	14 ibiltari
Aizkorri	1996-6-22	8 ibiltari

TABERNASH
Publishing

San
Antonio, 39

CLARIBIKO BELA

HAU DUK GOSEA!...
JANARI ETA EDARI
UGARI!!! GAUR SABELA
BETEKO DUT.



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



kide




kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



Klaseak euskaraz

BBB (BUP)

UBI (COU)

OHO (EGB)

LH (FP)



GEU
GASERATU EUSKARA
BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea
(Francisco de Vitoria
Institutuaren atzealdean)

☎ 12 09 50
909 42 88 36